



Azpeitiko Udala

UDALBATZA OSOAK 2022ko ABENDUAREN 13an HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

Azpeitian, 2022ko abenduaren 13an, Udaletxeko bilkura-areto nagusian elkartu da Udalbatza Osoa lehenengo deialdian eta ohizko bilkuran, aztergai-zerrendako gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko. Nagore Alkorta Elorza alkatea buru dela, eta batzarra osatzen duten zinegotzi denak bertan direla.

Honako akordioak hartu dira:

- 1.- Udalbatzak 2022eko irailaren 22an eta 2022ko azaroaren 8an egindako aktak onartzea.
- 2.- 2023. ekitaldirako aurrekontua onartzea.
- 3.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokion AU4 “Arana Ingurunea” gune urbanistikoan, 4.3 Esklabak-Iturzulo azpieremuan, Plan Bereziaren a.20.4.3.3 partzelan -1 eta 2 portaletan- eraikiko diren 28 etxebizitza tasatu eta euren gehigarrientzat -garaje eta trastelekuak- Araubide Bereziko Udal etxebizitza tasatuen BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA onartzea
- 4.- Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen baitan, Azpeitiko Udalak izapidetu behar duen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako merezimendu-lehiaketako sistemaren bidezko egonkortze-prozesuaren kudeaketa materiala Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernantza Departamentuari gomendatzea helburu duen HITZARMENA onartzea.
- 5.- Udal Zerga Agintarauan zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea aldatzeari hasierako onarpena ematea.
- 6.- Azpeitiko Udalaren Iruzuraren aurkako Batzordeak proposatu duen Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko Iruzurra, Ustelkeria eta Interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismo plana onartzea.
- 7.- Azpeitiko Udalak BIHARKO GIPUZKOA S.L. (B20643045) enpresarekin Etxez etxeko laguntza eta Eguneko Zentro zerbitzuak emateko duen kontratu administratiboa urte betez luzatzea, 2022ko abenduaren 1etik aurrera.
- 8.- UDALAREN eta EKINDAR Koop Elk. Erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena onartzea, Azpeitian Energia-trantsizioa sustatzeko, energia komunitate herritar bat sortuz eta garatuz.
- 9.- Alkatetzak 2022ko azaroaren 21ean onartu zuen kreditu aldaketaren berri ematea.
- 10.- Alkatetzak 2022ko urriaren 20an emandako Eskuordetza Bereziaren berri ematea.
- 11.- Alkatetzak 2022ko ekainean emandako ebazpenen berri ematea.
- 12.- Ez da egon galde edo erregurik.



Azpeitiko Udala

Azpeitia, 2023ko urtarrilaren 23a

UDALAREN IDAZKARIA,

Olatz Eizaguirre Orbegozo